



"Inprobisazio librea eta performance-a gustatzen zaizkit bereziki"

Elena Arbonies Jauregi (Durango, 1994) klarinetista durangarra musika garaikidean oinarrituriko masterra ikasten dabil Austriako Graz hirian. Durangoko Musika Eskolan ekin zion bideari eta orain Europako musikaririk onenekin ikasten dabil. • 2-3



Urki-Hegoalde saihebiderearen azken tartea lizitaziora atera dute

Durango • Durangoko Udalak lehiaketa publikora atera du Urki-Hegoalde saihebiderearen azken tartea egiteko obra, 3,5 milioi euroko inbertsioa eginda. Trafikoa arintzeko barik, saihebidereak Eguzkitzako industrialdea garatzen lagundu dezan gura dute. • 5



Euskal Ligako "talderik sendoenagaz" Elorriok ez du erritmoa jaitsi eta hirugarren dago sailkapenean

Futbola • Azkenengo hamaika partiduetatik bederatzi irabazi eta bat berdindu ditu. Erasoan, inspiratuta dabilza Itsasne Larruskain eta Laura Romero aurrelariak, eta talde osoaren lanari eskerrak ligako hamabi partidutan ez dute batere golik jaso. • 20

"Ados kluba pilotariok kudeatzen dugu, maila berean gaude"

Elkarrizketa • 2021ean sortu zenetik hona, Ainhoa Ruiz de Infante Ados pilota klubean dabil eta gustura dago bertan pilotariak jasotzen duten tratuagaz. • 20





Elena Arbonies Jauregi
Klarinetista
DURANGO | 1994

“Musikaria izatea lanbide bat baino gehiago da niretzat. Bizi proiektu bat da”

Elena Arbonies Jauregi klarinetista durangarra Austrian dabil musika garaikidean zentratutako ibilbidea lantzen

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoako Bartolome Ertzilla musika eskolan klarineta ikasten hasi zenean ez zuen imajinatu ere egiten musikak bere bizitzan beteko zuen espazioa hain handia izango zenik. Elena Arbonies klarinetista durangarra Europako musikaririk onenekin ikasten eta esperimentatzen ari da.

Austrian bizi zara. Zertan zabilta?

Austriako Graz hirian bizi naiz eta Vienara ere asko joaten naiz. Trantsizio momentu batean nago. Izan ere, bigarren masterra amaitzen eta *freelance* lez lan egiten nabil. Momentu honetan musika garaikidean zentratuta nago. Masterra ere horretan oinarritzen da. Musika klasikoaren zati bat da hori. Gaur egun idazten den musika klasiko

lantzen dut. Jada sortuta dauden proiektuetan parte hartzeaz gainera, masterreko lagunekin talde berri bat sortu dugu.

Masterragaz gustura zaude?

Oso master praktikoa da. Vienako talde bateko kideak dira irakasleak, Klangforum Wien. Musika garaikidearen arloan instituziorik handienetarikoa bat da. Eurekin gabilta espezializazioa egiten. Beraz, trebatzen nabil, eta, aldi berean, eurekin jotzen dut.

Zelan azalduko zenuke zer den musika garaikidea?

Musika garaikidea gauza asko dira. Batez ere, esperimentazioan oinarritzen den musika da. Lehen, estiloak egoten ziren. Gaur egun, konpositore bakoitzak bere sorkuntza egiten du eta interpretea konpo-

sitoreagaz geratzen da elkarlanean lan egiteko. Musika garaikidean elektronika dago, soinuaren esperimentazioa zaratekin, instrumentu arraroekin, dantzagaz, antzerkiagaz... beste lengoiaia bat da. Arlo honetan asko ikasi dut eta oso jende interesgarria ezagutu dut. Norberaren moduan espresatzen den jendea aurkitzea handia da.

Musika garaikidearen esparru zabal horretan, zer egitea gustatzen zaizu?

Niri bereziki inprobisazio librea eta performance-a gustatzen zaizkit, antzerkiagaz lotuta dagoen espresioa. Oso indartsua iruditzen zait gorputzaren “gestualitateak” musikagaz bat egiten duenean sortzen dena, musika gorpuzteko prozesu hori.

“Niri bereziki inprobisazio librea eta performance-a gustatzen zaizkit, antzerkiagaz lotuta dagoen espresioa”

Maila horretako musikari batek zein dedikazio dauka?


Dedikazio berezi bat da. Musikaria izatea lanbide bat baino gehiago da. Bizi proiektu bat dela esango nuke. Bizi naizen lekuko jendea eta nire inguru soziala musikariak

dira. Berba asko egiten dugu musikaz. Era berean, nire nortasuna garatzen duen profesio bat da. Ikasten ari naizenean egiten dudana autoanalizatzen dut eta hobea izaten ahalegintzen naiz, baina ez perfekzionismotik. Beharbada teknikoki edo espresiboki zehatzagoa

izan gura duzu, eta, beraz zeure buruagaz etengabe lan egiten duzu hori lortzeko.

Lanbide exigentea eta perfekzionista dela ematen du. Zelan bizi duzu hori?

Bai, eta kompetentzia eta presioa handiak dira. Zeure burua erakusten ari zara denbora guztian. Eta



beste mila ere badaude hori egiten. Ematen du beste zeozer berria ekarri behar duzula. Lanpostu gutxi dago guretzat, irakasle izatea ez bada. Neure burua irakasle legez ere ikusten dut, baina orain musikaria izateko ikasten ari naiz. Musika-rientzat pila bat beka eta aukera balego, agian ez litzateke horrela izango. Horregaitik, perfekzionismo hori hor dago. Aurpegi bikoitza dauka: musika askatasun batetik egin gura duzu, baina estresatuta zaude agian ezingo duzulako hori erakutsi. Hala ere, egiten dudana oso eskertuta nago. Ingaratzen zaituen komunitatearen arabera da dena, eta nik lagun onak aurkitu ditut hemen. Musika, bisio artistikoa eta laguntasuna konpartitzen ditugu. **Izan duzu erreferenterik ibilbidea hasterakoan? Nondik datorkizu zaletasuna?**

Amak musika ikasi zuen, baina gero ez zen musikara dedikatu. Aitak musika asko ipintzen zuen kotxean, baina besterik ez. Hasieran, nire lehenengo esperientzia Euskadiko Ikasleen Orkestran izan zen. Momentu horretan orkestrako kideak ziren nire erreferenteak. José Luis Estellés Musikeneko karrerako irakaslea, adibidez. Entzun nuen, oso musikari berezia eta klarinetista bikaina zela iruditu zitzaidan. Mirestu egiten dut eta asko inspiratu ninduen aurrera jarraitzeko. Badago emakume biolinista bat ere asko miresten dudana: Patricia Kopatchinskaja. Oso artista famatua da eta bereziki espresiboa eta antisistema da. Musika klasikoaren kliseetatik kanpora dago. Jotzen duenean ume baten moduan pasatzen du. Mutur pila bat esploratzen ditu. Musika klasikoa eta garaikidea lantzen ditu. Emakume hau folketik dator, bere gurasoak hortik datozelako, eta inspiratzen nauen indar eta lotsabakokeria bat dauka. bultzada bat eman dit gauzak apur bat ezberdin egiteko.

Zein musika mota entzuten duzu?

Lehen, musika klasikoagaz hasi nintzenean, beste musika batzuk alde batera uzten hasi nintzen,

mainstream izan daitezkeenak, reggaetoia esate baterako, agian interes horregaz buru-belarri nembilelako. Baina niri musika guztiak gustatzen zaizkit. Kalitatezkoa bada, edozein genero izan daiteke. Beste genero batzuetako artista askok inspiratu nauten. Dantza egitea gustatzen zait. Musika bakoitzak bere momentua du. Baina, sakontasuna gura badut, agian musika klasikora eta garaikidera joko dut. Eta, batez ere, musika mota hori zuzenean entzutea gustatzen zait.

Euskadiko ikasleen Orkestrarako hautatu nindutenean bultzada handia izan zen eta serioago hartzen hasi nintzen

Musika 'mainstream' horrek sarritan antzeko ezaugarriak izaten ditu. Sormen aldetik mugatuagoa da?

Musika komertzialaren arazoa da espazio lar handia hartzen duela eta ez duela beste musika batzuentzat lekurik uzten. Batzuetan ematen du ez dagoela beste ezer. Musika komertziala existitzea ondo dago, ni ere erakartzen nau eta entzuten dut. Egia esan, forma, akorde eta erritmo erregularrak dituen musikak erakarri egiten gaitu, ohituta gaude, familiarra denez horregaz identifikatzen gara, horregaz egin gura dugu dantzan. Musika klasiko edo garaikideko kontzertu batean, ostera, entzule legez ahalegin handiagoa egin behar dugu edukiaren konplexutasunagaitik, eta esfortzu horrek atzera botatzen gaitu... baina bueltan ematen dizuna agian handiagoa izan daiteke. Mundu guztia guk egiten dugun kontzertuetara etortzea gura nuke, hurbiltasun hori sortzea. Ez dakit zein den arazoa, agian marketina ere izan daiteke? Musikariok ere askotan isolatuta bizi gara, gure musika guretzat bakarrik eginez.



GEORG CIZEK-GRAF

Durangoko musika eskolan hasi zinen. Sasoi hartan ez zenuen imajinatuko musikaria izango zinenik.

Eskolaz kanpoko jarduera moduan klarinetea jotzen nuen musika eskolan. Oso leku familiarra zen eta oso giro ona zegoen. Erdi mailako gradua ere bertan egin nuen. Baina garai hartan oso ikasle gutxi jarraitzen zuten goi mailako musika ikasketekin, erdi mailako gradua momentu hartan hasi zelako Durangoko

Bartolome Ertzilla Kontserbatorioan. Orain desberdina da, musikari durangar asko dago eta poztekoa da.

Non egon zen inflexio puntua musikara dedikatzea erabakitzeko?

Euskadiko Ikasleen Orkestrarako hautatu nindutenean bultzada handia izan zen eta serioago hartzen hasi nintzen. Musika eskolako irakasleak, Lorena Rodriguezek, asko lagundu zidan, eta Zumaiako klarinetista batez

(Marixi Sesma) hartu-emanen jarri ninduen, probak prestatzeko.

Hemendik hamar urtera non ikusten duzu zeure burua?

Gatx da esaten. Ez dakit non egongo naizen. Beti datorrenari zabalik egongo naiz. Zeozer esatearren, Donostian bizitzea eta proiekturen bat sortzea gustatuko litzaidake. Euskal Herriari musika garaikideagaz zeozer egitea gustatuko litzaidake.

bertako
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



BIZKAIA
946 523 935
GIPUZKOA
943 903 450
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak 1.003.206 euroko inbertsioa egingo du Bartolome Ertzilla Musika Eskolan, azken urteotan egondako itogin eta hezetan arazoak konpontzeko. Jorge Varela zinegotziak adierazi duenez, udalaren hasierako asmoa teiltua "berritzea" izan da, baina azterketa arkitektoniko batek erakutsi du arazoa "uste baino sakonagoa" dela. Horren aurrean, udalak teiltu osoa aldatzea erabaki du, "bai egitura bera, bai teiltuaren iragazgaitasuna". Varela berbetan, eskolako gela batzuetan itoginak sortzen hasi ziren 2019an. Hainbat musika tresnak hezetan arazoak izan dituztela ere gaineratu du Ima Garrastatxu alkateak. Hori dela eta, sabai-aizun bikoitza ipini, eta argiztapena zein efizientzia energetikoa hobetuko dituzte.

Lanak 2023-2024 ikasturtean zehar egingo dituzte eta zortzi hilabeteko iraupena izango dute. Eta denbora-tarte horretan, Musika Eskolan ezingo da eskolarik eman. Horren aurrean, lasaitasunerako deia egin du Iker Ruiz de Alegriak, eskolako zuzendari akademikoak: "2023-2024 ikasturtea Musika Eskolan bertan hasia da gure asmoa. Lehenengo egunetan lekualdatetari buruzko azalpenak emango ditugu, eta horren ostean

Milioi bat euroko inbertsioa Musika Eskolan, itoginak eta hezetan arazoak konpontzeko

Lanak 2023-2024 ikasturtean egingo dituzte. Klaseak beste eraikin batera lekualdatuko dituzte tarte horretan



Iker Ruiz de Alegria Musika Eskolako zuzendaria (ezkerrean), Durango udal agintariekin.

leku berrirako aldaketa egingo dugu. Beraz, familiak lasai egon daitezke. Posta elektronikoko baten bitartez jasoko dute lekualdatetaren berri, eta, beharrezkoa balitz, prest egongo gara bilera berezi bat egiteko ere", azaldu du Ruiz de

Alegriak. Oraingo ez dute argitu Musika Eskolako klaseak zein lekutan emango dituzten behin-behinean. Musika Eskolako eta udaleko arduradunak Hezkuntza Sailagaz hartu-emanetan dabilta lekualdaketa egiteko.

Durango bilketa gune bat ipini dute lurrikaran kaltetuei laguntzeko

Madalenako Auzo Alai elkarteak abiatu du bilketa

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Madalenako Auzo Alai elkarteak material eta elikagai bilketa ipini du martxan Turkiako eta Siriako lurrikaretan kaltetutakoei laguntzeko. Juan Olazaran kaleko 17. zenbakian dagoen lonjan ipini dute bilketa gunea. Oraingo, egun bi ipini dituzte bilketarako: domeka hau, 11:00etatik 13:30era; eta datorren eguaztena, 18:00etatik 20:30era. Honako hauek dira

une honetan gehien behar diren material eta elikagaiak: arropa, oinetakoak, mantak, elikagai ez iragankorrak —kristalezko potedunak ez izatea eskatu dute— eta umeentzako gauzak: haur-oihalak, esne-hautsa, toallaxoak... Azpiko arropa ere behar dela zehaztu dute. Baturikoa Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartearen bitartez helaraziko dute beharrezkoak dutenengana.



Juan Olazaran kaleko 17. zenbakiko lonjan dago bilketa gunea.



DAZ elkarteak kideak, Santa Ana plazan.

DAZek alderdi politikoei galdetu die ea zein neurri hartuko duten Alde Zaharreko arazoak konpontzeko

Elkarteak alderdien "posizionamendua" ezagutu gura du. "Haiek hauteskunde atarian badaude, gu ere bai", diote

DURANGO • E.H.

Durango Alde Zaharra (DAZ) elkarteak fitxa bat mugitu du hauteskunde joko zelaian. Elkarrekin argibideak eskatu dizkie Durango alderdi politikoei, "espazio publikoan gauze gertatzen diren portaera bandalikoaren eta zaraten" aurrean bakoitzak zein "posizionamendu" duen eta

arazoak konpontzeko zein "ekintza zehatz" egingo duten jakiteko. "Berba onak alde batera utzita, udal gobernuan sartuko balitz alderdi politiko edo koalizio jakin batek zein ekintza zehatz egingo lituzke?", galdetu dute. "Galdera honek zer gura dugun? Bada, botoa zeini eman behar diogun jakitea", azaldu du Jose Mari Arrilla-

ga DAZen bozeramaileak. "Haiek hauteskunderi begira badaude, gu ere bai", gaineratu du. Neurriak hauteskunde programetan islatuta egotea gura du bozeramaileak. "Herritar askoren ahotik entzuten dugu Alde Zaharrean bizitzen hasi ginenean bagenekielan sartzen ginen. Badakigu non bizi garen, baina legea betearaziko balitz gure bizi kalitatea nabarmen hobetuko litzatekeela iruditzen zaigu", azaldu du Agurtzane Irigoras DAZeko kideak. "Hauteskundeetan denek diote arazoa konpontzeko dutela. Pentsatzen duzu, bai, oraingoan bai, kasu egingo dute, baina gero konturatzen zara ezetz. Jendearen ilusioagaz ez jokatzea eskatzen dugu", gaineratu du Irigorasek.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko otsailaren 17a
21. urtea - 925. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

PEFC dirutiaria
Produktu hau
kontsumatzen
duzunean, erabaki
duzue eta Bako
Produktuaketa
Sistemaren
dirutiaria dauka
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Urki-Hegoalde saihsbidearen azken tartea lizitaziora atera dute, 3,5 milioi euroko inbertsioa eginda

Proiektua gauzatzekoan ibilgailuak Tabiratik Abadiñora joan ahalko dira, Ona enpresaren ondoko biribilgunera



Tabiratik Astola alderako inguruak honako itxura hau hartuko du gutxi gorabehera etorkizunean.

DURANGO • E.H.

Urki-Hegoalde saihsbidearen azken faseari ekitea erabaki du Durangoko Udalak. 3,5 milioi euro baino gehiagoko inbertsioagaz, saihsbideko azken zatia garatzeko lanak lehiaketa publikora atera dituzte. Modu horretan, herriaren kanpoaldetik doan errepide-eraztuna zarratuta geratuko da, eta ibilgailuek Tabiratik Abadiño aldera irten ahal izango dute herrigunetik, Ona enpresaren eta Alcampo supermerkatuaren ondoko biribilgunera. Horrez gainera, saihsbidea amaitzeak bigarren eragin bat izango du Durangoko Udalaren berbetan. Azpiegitura amaitzea "funtsezkoa" dela iritzi dio, horrek Eguzkitzako lurretan "industria sektorea garatzea" ekarri eta "eskualderako enplegua ahalbidetu" dezakeelako.

Urki-Hegoalde proiektua 2010ean jaio zen, aurreko gobernu taldeagaz. Egungo gobernu taldeak proiektua "10 urtean geldirik" egon dela iritzi dio, eta lizitazioagaz proiektuaren amaiera "geroago eta gertuago" dagoela gaineratu du. "Orain arte, eta helmugaren arabera, beharrezkoa zen autoak herrigunearantz sartzea. Errepide honi eskerrak, Durangoko kanpoalde osoa errepide sarearen bitartez lotuta egotea lortuko dugu, eta beharrezkoa ez duten autoak ez dira herrigunearantz sartuko", adierazi dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak.

Durangoko EAJrentzat lizitazioa berri "ona" da, "beti" egin dutelako "Eguzkitzako industria lurzorua-aren garapenaren alde". Gogoratu dute saihsbidearen proiektua 2010ean hasi zela, EAJ agintean zegoela, eta esan dute "gobernu taldearen meritu bakarra" proiektu hari "jarraipena" ematea izan dela. Eguzkitzako garapena "modu irmoan" bultzatzeko garaia dela iritzi dio EAJk.

Landako kiroldegietako monitoreek greba mugagabea hasi dute

ELAk dio lan baldintzek "okerrera" egin dutela urtariletik



Martitzenean Andra Mariko elizpearen aurrealdean egin zuten protesta.

DURANGO • E.H.

"Ez dugu lan baldintzak hobetzea eskatzen", diote ELA sindikatuko kideek; "Zeuden lan baldintzak mantentzea baino". Astelehenean, Landako kiroldegietan lan egiten duten kirol monitoreek greba mugagabea hasi zuten. 22 bat langile daude lanuztera deituta. Athlon, BPXsport eta SportStudio azpikontratatutako enpresetako beharginak dira guztiak. Sindikatuaren berbetan, urte hasieran kirol zerbitzua kudeatzeko lizitazio berria indarrean sartu zenetik "okerrera" egin dute lan baldintzek. Diotenez, izurria baino lehena "astean 140,5 orduko kirol eskaintza" zegoen. Orain gutxiago eskaintzen dira, "astean 94 ordu, nahiz eta herritarren eskaria handia izaten jarraitu". Gaineratu

dutenez, *fitness* gelan "murrizketak" egon dira eta gaur egun ez dago monitorerik "lehenengo orduan eta eguerdian". Bestalde, azpikontratatutako hiru enpresei egotzi diote "lan baldintzak eta subrogazioa ez errespetatzea". Horrez gainera, Durangoko Udala ere seinatu dute. "Tratu txar instituzionala" ematea egotzi diote.

Greba azpikontratatutako beharginek hasi dutenez, haiek eskaintzen dituzten jarduerak, Lur kategoriakoak (Spinning, pilates, zumba...), etenda geratu daitezke. *Fitness* aretoan ere, berdin. Baliteke monitoretza lanak etenda egotea. Edozelan ere, Durango Kirolak-ek argitu du aretora sartzeko aukera egon badagoela. Grebak ez du eraginik rokodromoan, igerilekuan eta Kirol Orientazio Zerbitzuan.

PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA
AIRFLOW PERIODONTZIA
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

DURANGO
ANDRA MARI KALEA 4
944 008 235 - 688 766 973

GALDAKAO
LAPURDI KALEA 18
944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE

Zornotzan 58 duatloilari talde lehiatuko dira zapatuan, eta Garaiko proban 8 izango dira

Zornotzako proban duatloilariak taldeka lehiatuko dira erlojuaren kontra. Garain erreleboka egingo dute, taldeka

GARAI / ZORNOTZA • E.H.

Amorebieta-Etxanoko Triatloi Taldeak kirol hitzordu bi prestatu ditu asteburu honetarako. Duatloi proba bana antolatu du Zornotzan eta Garain. Lehenengoa zapatuan izango da, Larrea kiroldegiko inguruetatik hasita. Bigarrena, Garain, herriko plazatik abiatuta.

Zornotzako erlojupeko proba izango da. 16:00etan hasiko da eta

4-6 kidez osaturiko 58 duatloilari taldek parte hartuko dute. Aurretik izango duten zirkuitua honako hau izango da: 5 kilometro egingo dituzte korrika, beste 20 bizikletan eta beste 2,5 korrika. Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldeak lasterketa hau antolatzen duen laugarren aldia da.

Bestalde, domekan Garain egingo den proba nagusia erre-

lebokakoa izango da. Parte hartzaileek taldeka parte hartuko dute, mutilen kategorian, nesken kategorian eta kategoría mistoan. Guztira, zortzi talde egongo dira. Lehenengo kategoría bietan hiru kidez osaturiko taldeak lehiatuko dira. Kategoría mistoan, ostera, lau taldeak. Edozelan ere, kide guztiek federatuta egon beharko dute. Lehiakide bakoitzak kilometro bi egin beharko ditu korrika lehenik, zortzi kilometro bizikletan gero, eta beste kilometro bat korrika azkenik. Kategoría mistoko kideek 10:00etan ekingo diote lasterketari, 10:01ean mutilek, eta 10:02an neskek. Horrez gainera, Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldeak kadeteentzako duatloia ere prestatu du. Proba 12:30ean izango da. 14-15 urteko neska-mutilek parte hartuko dute bertan.



2019an Garain egindako duatloiarren une bat.

Jangela eredu berria "blokeatzea" egotzi diete legebiltzarkideei

Berton Bertokoak dio Jaurlaritzak eta legebiltzarkideek ez dietela "bidean aurrerapausorik ematen uzten"



Berton Bertokoak kaleraturiko bideoaren fotograma bat.

DURANGALDEA • E.H.

Berton Bertokoako kideek bideo bat zabaldu dute eskualdeko ekoizleak eta hainbat herritako gurasoak lagun dituztela. Ikus-entzunezkoan, Jaurlaritzako eta Legebiltzarreko ordezkari politikoen helbide elektronikoak "blokeatu" eta "inkomunikatu" dituztela simulatu dute. "Gaur egun, eskoletako sukaldeetan ez dira gure base-ritarren eta arrantzaleen produktuak sartzen. Gainera, janariaren kalitatea geroago eta eskasago da. Gaurko legedia aplikatuz, ez digute gure bidean aurrerapausorik ematen uzten, eta Hezkuntza Lege berrian ere eskola publikoetako jangelak ahaztu dituzte", kritikatu dute. Jangela eredu berria "blokeatzen" ibiltzea leporatu diete Eusko Jaurlaritzako eta Eusko Legebiltzarreko hainbat ordezkari, eta, horri erantzuteko, hainbat agintariren helbide elektronikoak "blokeatu" dute, modu simulatuan. Bideoa anboto.org atarian dago ikusgai.

EH Bildu: "Herritarrek eskubidea dute jakiteko zein den Smurfiten labe berriak euren osasunean izango duen eragina"

Proiektua eraikitzeke baimena eman dutenek herritarrei "informazio argia emateko ardura" dutela diote

IURRETA • J.G./A.B.

Iurretako EH Bilduk prentsa oharrean azaldu duenez, labe berria eraikitzen dabilta Smurfit enpresan: "Iurretako Smurfit Kappa paper fabrikaren obra handi bat martxan dagoela jakin dugu. Baita Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak ebazpena egin zuela ere 2022ko apirilaren 22an, eta bertan enpresa honi Ingurumen Baimen Integratua aldatzea onartu ziola, eta kare-labe berria jartzeko proiekturako ingurumen-inpaktaren adierazpena egin zuela. Era berean, Iurretako Udalak obra lizentzia eman ziola labea eraikitzeke, 2022ko maiatzean". Informazio horren aurrean koalizio subiranistak azaldu duenez, "Iehen Zaldibarko zaborte-gira eramaten zituzten hondakinak labe berri honetan kudeatu gura ditu Smurfiten, eta prozesu honek emisioak izango ditu airera".

Mozioa udalean

Airearen kalitateaz kezkatuta dagoela dio EH Bilduk, eta proiektu honen inguruko informazioa eskatu du udalean eta baita Eusko Jaurlaritzan ere. 2022ko abenduan, Durangoko, Zornotzako eta Iurretako EH Bilduk Iurretako Udal Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari azalpenak emateko eskae-

ra egin zien eta oraindino ez dute erantzunik jaso.

2023ko urtarrilean, Iurretako EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen eta udalbatzara eramane zuen gaia. "Mozio horretan udalari eskatzen genion herritarren aurrean azalpenak eman zitzala, eraikitzeke baimena eman duen labearen emisioek zein eragin izango duten arnasten dugun airearen kalitatean eta pertsonen osasunean", diote prentsa oharrean. Gainera, idatzi horretan Eusko Jaurlaritzari eskaera egin zioten, "herritarrei azalpenak ematera etor dadin". EAJK mozioaren kontra bozkatu zuen eta eskaera ez zen aurrera joan. Paper fabrikak Jaurlaritzaren Ingurumen Baimen Bateratua duela azaldu zuten jeltzaleek, eta "jarraipen iraunkorra" egingo dela airearen kalitatea bermatzeko Europako araudiak zehaztutako neurriak bete daitezela. Gaineratu zuten badagoela Durangoko eta Iurretako udalek eta Jaurlaritzak osatutako mahai tekniko bat, eta bertan gaia aztertu dutela.

Prentsa oharrean informazio eskaera berretsi du EH Bilduk publikoki: "Herritarrek eskubidea dute jakiteko zein izango den Smurfiten labe berriak euren osasunean izango duen eragina".

Diru laguntzak Zornotzan umeak jaiotzeagaitik eta adopzioan hartzeagaitik

Udalak 50.000 euroko diru poltsa prestatu du

ZORNOTZA • E.H.

Zornotzako Udalak diruz lagunduko die iazko urriaren 30etik aurtengo azaroaren 23ra bitartean umeak dituzten edo umeren bat adopzioan hartzen duten gurasoei. 50.000 euroko diru poltsa prestatu du horretarako. Neurri honeguz, udalak helburu bi markatu ditu: familiei gastuekin laguntzea eta egin beharreko erosketak herriko merkataritza establezimenduetan egitea. Hain zuzen ere, familiek herriko denda txikietan egin beharko dituzte erosketak. Adibidez, botiketean, umeentzako arropa dendetan,

etxerako artikuluen edo umeentzako osagarrien dendetan, elikagai eta higieendetan. Jaiotza edo adopzio anizkoitzen kasuan, udalak 400 eurora arteko laguntza emango du ume bakoitzeko. Era berean, udalak argitu du laguntza ezingo dela umea zaintzeko langileak kontratatzea bideratu. Interesdunek zabalik dute aukera laguntza eskatzeko, Herritarrentzako Arreta zentroan edo www.amorebieta-etxano.eus atarian. Umea jaiotzen denetik edo adopzioa ebazten den datatik hiru hilabeteko epea izango dute eskariak egiteko.



Ostalaritza gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Durango**



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera.
Gozo eta osasuntsu gainera!

 **Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetakoko
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

 **Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia giro
ezin hobean.

 **Iurreta**



GAUARGI
Dantzari 4 behea, IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan
mollete eta errazioak. Domeketan
rabak eta askotariko errazioak.

 **Zornotza**



XIBERU
Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946181758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea
ostegunero eta afariak asteburu. Giro
alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



Silvia Sánchez idazleak Janis Joplin abeslariari buruz idatzi duen liburua aurkeztuko du, gaur, Mañarian

Benetako gertaerak eta fikziozko elkarrizketak uztartu ditu abeslari estatu batuarra protagonista duen lan berrian



Silvia Sanchezen ibilbideko hirugarren liburua da 'With Janis Joplin'.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Herriko Tabernan 'With Janis Joplin' izeneko liburua aurkeztuko dute gaur, 20:00etan. Madrilen bizi den Silvia Sánchez gasteiztarra da idazlea. Herriko Taberna kudeatzen dutenak ezagu-

nak ditu eta iazko urte amaieran kaleraturiko liburua Mañarian aurkeztera gonbidatu dute. Sánchez hantxe egongo da, liburuaren gaineko xehetasunak ematen.

Bere ibilbideko hirugarren liburuko protagonista umetatik

entzun duen blues-rock abeslari bat da: Janis Joplin. 1970ean hil zen, 27 urtegeaz. Bizi balitz 80 urte bete zituen aurtengo urtarrilean. "Janis Joplini egindako omenaldia da nobela, bere musikak eta bere lorpenak izan zuten garrantzia

ulertzeko modu bat", adierazi du idazleak.

Nobelan datu biografikoak eta benetako gertaerak asmatuak egoerekin nahasten dira. Nobelako osagai garrantzitsu bat fikziozko elkarrizketak dira; esaterako, hil aurreko eta 80 urte bete berri dituen Janis Joplinen artekoa. Ariketa

"Liburua omenaldi bat da, bere musikak eta lorpenek izandako garrantzia ulertzeko modu bat"

horren eta antzerako beste batzuen bitartez, abeslari estatubatuarren motibazioetan eta bizi izan zuten sasoiaren murgiltzeko aukera eskaintzen du idazleak. "Famak dituen askotariko aurpegiaren barneratuko gaitu; musikak duen boterean eta abeslariak zaleekin duten hartu-emanetan; baita rockaren mundu maskulinizatuan emakume izateak duen esanguran ere", azaldu du Sanchezek.

Urtebeteko ardi txakurrari etxea aurkitu gura dio Izurtzako Udalak

IZURTZA • J.D.

Iazko urte amaieran, Ertzaintzak kalean bakarrik zegoen txakur bat jaso zuen Izurtzako gasolindegian inguruan, pertsona baten abisuari erantzunez. Txakurrak ez zuen txipik ipinita eta bat ipini zioten. Izurtzan aurkitu zuten, harrezkero Izurtzako Udala egin da txakurraren kargu. Txakurrak urtebete inguru du.

Orain, udalak etxe bat aurkitu gura dio txakurrari. Gaur egun, Larrinagatzuko Neberondo txakurren egoitzan dago. "Esanekoa" eta "lagunkoia" dela azaldu dute udaletik. Informazio gehiago gura duenak txakurren egoitzan bertan edo udaletxean galdetu dezake.



Otxandioko lehenengo mozorro lehiaketan zortzi taldek parte hartuko dute

OTXANDIO • J.D.

Otxandion inauteriak ospatuko dituzte zapatu honetan. Ekimenetarikoa bat nobedadea da: kuadrillen arteko mozorro lehiaketa, udalak antolatutakoa. Lehiaketarako izen-ematea amaituta dago eta zortzi lagun taldek parte hartuko dute; eurretari bi umeenak dira. Beraz, guztira 80 bat otxandiarrek parte hartuko dute ekimenean.

Parte hartzaileak desfilean irtengo dira Otxandioko Bandagaz, 13:30ean: Andikona plaza-tik udaletzeko plazara. Honako hauek dira sariak: Lehenengorantz luntxa herriko taberna batean, bigarrenarentzat gazta dastatzea Maider Undaren gaztategian, eta hirugarrenarentzat Euskal Herriko produktuz beteriko otzara.

Sari banaketa arratsaldean egingo dute, Kittuk 18:00etan egingo duen erromeriaren ondoren. 11Lore elkarteak txokolatea banatuko du.

Ruben Garate gogoratu dute Motxotegira egindako irteeran

Garate auto istripuz hil zen, preso bat bisitatetik bueltan

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko herritar talde bat Motxotegi mendira joan zen joan zen asteburuan, orain 23 urte hildako Ruben Garate herrikidea gogoratzeko. Egitasmoaren bultzatzaileek gogoratu dutenez, Garate 2000. urteko otsailaren 13an hil zen, auto istripuz, Alcala Mecoko (Madril, Espainia) espetsxean dispertsatu

tuta zegoen preso bati bisita egitetik bueltan. Harrezkero Garateren heriotzaren urteurrentan urtero egin izan duten moduan, herri ekimena egin zuten Motxotegin. Bertaratutakoek familia argazkia bat atera zuten lehenengo. Ondoren, herrikide batek dantza egin zuen eta Aitor Esteban bertsolariak hiru bertso eskaini zizkion.



Joan zen zapatuan egindako irteerako irudia.



Mallabiko frontoian egingo dute maratoia.

Mallabian frontenis maratoia egingo dute hilaren 25ean

Martxan da binakako txapelketan parte hartzeko izen-ematea. Bikote irabazleak 300 euroko diru saria izango du

MALLABIA • J.D.

Mallabia Kirol Elkarteak antolatzen duen frontenis maratoi mistoa ate joka dago. Aurtengo aldia otsailaren 25ean egingo dute, zapatuan, eta dagoeneko izen-ematea hasita dago, 669 028 718 telefonoaren bitartez. Izen-ematea 18 euro da bikoteko. Plazak muga-

tuak direla gogoratu dute antolatuak. Irabazleak 300 euroko saria eskuratuko du; bigarrenak 200 eurokoa eta hirugarrenak 100 eurokoa.

Frontenis maratoiak arrakastatsuak izaten dira eta Euskal Herriko nahiz kanpoko bikoteek parte hartzen dute.

Athletic Club




Vs



Girona FC

Athleticen eta Gironaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOK hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOK egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: otsailaren 20a.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



**anboto
kide**

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Hondamendia antzerkirako sarrera bikoitza.
Otsailaren 24an, Zornotza aretoan.



Goazen 9.0 ikuskizunerako sarrera bikoitz bi.
Otsailaren 26an, San Agustinen.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Urteak bete, abenturak bizi!: Olatz Baños eta Irati Axpe

Goazen 9.0, Zornotzan: Oihana Azkorbebeitia

Rabbit Academy: Pazko arrautzen lapurreta: Matxalen Manzisidor


Hondamendia, Arriola atzokian: Maria Lopez

Jatordua Uxarten: Idoia Marin Kortazar

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Iñaki Etkezarraga 'Etxe'-k Bizipozaren hirugarren bilduman parte hartu du

Bizipoza elkarteak kaleratu duen 'Mundu berri bat guztiontzat' bildumaren hirugarren edizioan parte hartu du musikari berrizarrak; 'Hegan' kantuan abestu du



Iñaki Etkezarraga 'Etxe', goian ezkerretara.

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Hainbat eskubide bete barik eta betebeharrak dituzten haur eta familien 36 elkarteak osatzen dute Bizipoza. Egin dituzten ekin-tzen artean, azken urteetan hiru bilduma kaleratu dituzte, elkarte bakoitzarentzat abesti bat grabatuta. Besteak beste, Nuala, Marea Urdina eta Juneren Hegoak elkarteentzat grabatu dituzte kantak. Hain zuzen ere, azken elkarte honen abestian Iñaki Etkezarraga 'Etxe' berrizarrak parte hartu du. 'Hegan' abestian kantatu du. Hirugarren bilduma hau urtarrilaren 28an kaleratu zuten.

'Etxe' pozik agertu da. Besteak beste, Olatz Salvador, Aitor Gorosabel (Su Ta Gar), Eñaut Elorrieta

'Etxe'-k Juneren Hegoak elkartearentzako abestian parte hartu du, Ines Osinaga eta Miren Artetxegaz batera

eta Enrique Villareal 'El Drogas' musikariek, eta Oihana Iguaran eta Igor Elortza bertsolariek parte hartu dute orain arteko bildumetan. "Euskal Herriko artistarik ezagunenetarik askok parte hartu dute hiru bildumetan, eta nire izena zerrenda horretan ikustea opari bat da; gainera, ikusita denok kausa honengaitik batu garela, bizipoza ematen duen zerbait da", adierazi du 'Etxe'-k. Miren Artetxe

bertsolariek idatzi ditu *Hegan* kantuko hitzak, eta Ines Osinagak ere kantatu du. "Oso esperientzia polita izan da; estilo desberdinetako artistak izan arren, abesti polita geratu da", gaineratu du musikari berrizarrak. Xabier Zabalak egin ditu hiru bildumetako abesti guztietako musikak. "Horrela lan egin dudana lehenengo aldia izan da. Xabierrek bidalitako melodiekin eta Mirenen hitzekin entseatu, eta gero grabatu baino ez genuen egin behar", argitu du.

Abestia ez ezik, bideoklipa ere grabatu dute bildumako abesti denekin. 'Hegan' abestiaren kasuan, otsailaren 16an publikatu dute bideoa. Bizipozaren webgunean dago ikusgai.

Zabalik dago Zaldibarko Herri ikastetxean izena emateko epea

2023/2024 ikasturterako izena emateko epea otsailaren 24ra bitartean egongo da zabalik, zuzendaritzan bertan



Zaldibarko herri ikastetxea.

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarren zabalik dago 2023/2024 ikasturterako herri ikastetxean izena emateko epea. Otsailaren 24ra arte egongo da aukera bertan izena emateko; horretarako, interesa dutenek bulegotik pasatu beharko dute, honako ordu-tegi honetan: goizetan 11:00-12:30 bitartean, edo astelehen eta eguaztenetan 14:30-15:45 bitartean. Izena emateko, familia liburuaren fotokopia, amaren edo aitaren NAN fotokopia eta etxearen errolda agiria aurkeztu beharko dituzte; azken agiri hau udaletxean eskatu beharko dute.

Hondakinak plazara; Elorrio txukun mantentzea denen ardura dela gogorarazteko



Hondakinak Elorrioko plazan.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguaztenetik gaur arte zabor mendi bat egon da Elorrioko plazan. Hondakin hauek brigadako langileek utzi dituzte plazan, Elorrioko Udalak martxan ipini duen kanpaina baten barruan. Udaltetik jakinarazi dutenez, Elorrioren egun zehatzak daude etxeetako

edo lokaletako tamaina handiko hondakinak ateratzeko: hileko bigarren eta laugarren asteetan, martitzeneko 20:00etatik eguazteneko 07:00ak bitartean. "Baina, orokorrean, ez dira egunak errespetatzen eta egunero jasotzen ditugu honelako hondakinak kaletik", azaldu dute udaleko ordezkari eta

langileek. "Bistakoa da kalean pila-tzen den zikinkeria ez dela inoren gustukoa; ez higieagaitik, ez kutsadura bisualagaitik. Hondakin horien bilketa Mankomunitateari dagokion arren, brigadako langileek urteak daramatzate epetik kanpora utzitako hondakinak jasotzen –egun luzez kalean botata egon ez daitezken– eta euren egunerokoa bete behar dituzten garbiketa lanak alde batera utzi beharra dakar horrek", azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

Hori horrela, Mankomunitateari egun kopurua handitzeko eskatuko diotela eta hemendik aurrera brigada kale-garbiketa arruntean arituko dela azaldu du alkateak. "Finkaturiko egunetik kanpora ateratzen diren hondakin handiak kalean bertan uztea erabaki dugu, Mankomunitateak jaso arte. Apustu irmoa da", gehitu du alkateak.

Bestalde, Elorrioko herritar guztien etxeetara informazio esku-orria eta egutegia jasotzen duen imana banatuko dutela azaldu dute. "Elorrio txukun mantentzea denon ardura da", gaineratu du Buruagak.



lazko urteurreneko argazkia. @ELORRIKOGAZTETXEA

Mozorrotuta ospatuko dute Gaztetxearen 35. urteurrena

Gaztetxeko kideek egun osoko egitaraua antolatu dute urteurren jaia ospatzeko. Gaia zuri&beltz izango da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mozorrotuta eta egun osoko egitarauagaz ospatuko dute zapatuan, otsailak 18, Elorrioko Gaztetxearen 35. urteurrena. 12:30ean Gaztetxetik hasiko den karropoteoagaz emango diote hasiera urteurren jaiari. Urtero lez, bazkaldu aurretik omenaldia egingo dute San Josen, eta, ho-

rren ondoren, bazkaldu egingo dute. Arratsaldean ez da musika-rik faltako Elorrioren eta talde eta DJ hauek egongo dira: Mozkor Alaiak, Ainhoa & Selektah 9MM, Amona, Kontralde eta DJ Gorriortxu eta Laztanak.

Bestalde, Gaztetxeko kideek jakinarazi dutenez, zuri&beltz da mozorrotzeko aurtengo gaia.



Julene Lazkano izango da Elorrioko EH Bilduren alkategaia

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko EH Bilduk sare sozialen bitartez jakinarazi duenez, Julene Lazkano izango da koalizio subiranistako alkategaia hurrengo hauteskundeetan. "Ilusioz eta indarrez sentitzen naiz erronka honi aurre egiteko. Azken urteetan, Idoia Buruagaz eta Maria Herrerogaz asko ikasi dut udal kudeaketan, talde konprometitua gara, langileak gara eta horrela jarraituko dugu hurrengo lau urteetan ere", azaldu du Lazkanok.

Julene Lazkano irakaslea da ogibidez, eta Atzerriko Hezkuntza eta Psikopedagogia ikasketak ditu. Azken legegintzaldian kultura, gazteria eta jaietako zinegotzi lez aritu da.

Jauregi auzoa oinezkoentzat atsegina bihurtzen dabilta

Autoentzako 55 aparkaleku egin dituzte auzoan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko hasi dira Atxondoko Jauregi auzoa berrurbanizatzen. Udaltetik jakinarazi dutenez, behin lan hauek amaituta auzoa atsegina izango da oinezkoentzat; berdeguneak izango ditu, eta baita pasealeku eta bankuak ere. Gainera, autoentzako 55 aparkaleku egongo dira. "Hilabete askotako lanaren ondoren, auzo honetako bizila-

gunen bizi kalitatea nabarmen hobetzea lortuko duten obrak hasi dira. Hilabete gutxi barru amaituko dira eta gobernu talde honek aurten bultzatu dituen beste proiektuei gehituko zaizkien lanak dira", azaldu du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak.

Bestalde, herritarrek proiektua gauzatzen parte hartu dutela adierazi dute.



Jauregi auzoko argazkia.



Mikel Urrutia, Abadiñoiko igerilekuan.

EH Bildu: "Igerilekuko obraren gainean egoten jarraituko dugu"

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoiko EH Bilduko kideak igerilekuko lanak ikuskatzen egon dira, obrako zuzendaritzagaz eta udal teknikariekin batera. EH Bilduko kideek azaldu dutenez, igerilekuak aldaketa nabarmenak izango ditu. Aurrekoagaz alderatuta, askoz ere ilunagoa izango da; guztiz itxia izango da. Udan lau ate baino ez dira zabalduko kanpoko zelatik igerilekura sartzeko.

Bestalde, estalki berriaren mantentzea errazagoa eta energia kontsumoari dagokionez eraginkorragoa izango dela azaldu dute. Hala ere, teiltuaren diseinua dela-eta ezingo dela eguzki panelik ipini adierazi dute.

"Urte hauetan guztietan egin dugun lez, denak ongi irtetea gura dugulako, obraren eta kudeaketaren gainean egoten jarraituko dugu", azaldu du Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramaileak.

Musika taldeen bertsio lehiaketa egingo dute Plateruenean, maiatzean

Durungaldeko Río de Oro Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatu duen lehiaketa maiatzaren 20an izango da

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Lehiaketa Río de Oro Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatu du. Maiatzaren 20an egingo dute eta talde irabazleak 500 euroko saria eskuratuko du.

Lehiaketara aurkezten den talde bakoitzak musika talde bakarraren bertsioak jo beharko ditu Plateruenean oholta gai-

nean. Talde bakoitzak 15etik 20 minutura arteko kontzertua jo beharko du jendaurrean. Ikusleen artean epaimahaiko kideak egongo dira eta haiek erabakiko dute zein taldek irabazi duen. Lehiaketan izena emateko, riodeorodurango@hotmail.com helbidera idatzi beharko da, martxoaren 12a baino lehenago.



Lehiaketa Plateruenean izango da.

Politikan

Jesica Ruiz Perez
PSE-EE



Guatemala

Durangoko Udalak hitzarmen bat du Medicumundirekin, eta hitzarmen horretan, Aliantza zentroa laguntzen dugu (Aliantza Guatemalako aterpetxe bat da, eta bertan salerosketaren, bortxaketen edo indarkeriaren biktima izan diren neska gazteei ostata, babes, prebentzioa eta justiziarako sarbidea ematen zaizkie). Medicumundiren hitzarmenak badu sentsibilizazio beste alderdi bat. Sentsibilizazio hori gauzatze-ko lehiaketa bat antolatu zen, non Durangoko 4 laguneko taldeek hainbat proba egin behar izan zituzten, Guatemala eta osasuna gai hartuta. Talde irabazleak Guatemalako errealitatea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Politikariorioi joateko aukera eman zitzaigun (gastuak geure gain hartuz) eta nik ez nuen bi aldez pentsatu.

Medicumundiri esker, Guatemalako errealitatea ezagutzeko aukera izan dugu. Herrialde horretan, jendea gosez hiltzen da: 5 urtetik beherako haurren %50ek baino gehiagok desnutritzioa pairatzen du, eta horrek erabateko asimetria soziala eragiten du. Herrialde horretan, biztanleriaren erdia indigena da, eta bigarren mailako biztanleak balira bezala tratatzen dituzte, %70 nekazariak dira, eta, gainera, horietako asko edateko urik eta argi elektrikorik gabe bizi dira. Bertako gazteen ametsa bizitza hobe baten bila emigratu ahal izatea da.

Bidaia horretan konturatu zuten zera zer behar dauden, zein zorionekoak garen, errealitatea uste baino okerragoa dela eta desberdintasunari aurre egitea dela oraindik daukagun erronka nagusia.

Durungaldea asteen

Txileko 18 irakaslek Maiztegi eskolako Ikas Komunitate proiektua ezagutu dute

IURRETA | Txileko unibertsitate bateko 18 irakaslek —ikastetxeen zuzendaritza eta kudeaketagaz loturiko graduondo bat egiten dabilta—, Iurretako Maiztegi herri eskola bisitatu zuten joan zen otsailaren 2an. Maiztegi ikastetxeko Ikas Komunitatea proiektua ezagutzeko aukera izan zuten. Maiztegiko eskolaz gainera, Bizkai-ko zenbait ikastetxe bisitatu zuten.



Zabalik dago emakume nekazari eta artisauen azokan izena emateko epea

ZORNOTZA | Zornotzako Udalak zabaldu du Euskal Herriko emakume nekazari eta artisauen azokan izena emateko epea. Bertan izena eman gura duten emakumeek otsailaren 20ra arteko epea dute eskaria erregistratzeko. Udaleko web orrian, 688 809 818 edo 946 300 769 telefonoetan, edo berdintasuna@amorebieta.eus helbidean egin beharko dute eskaria.



Herria elkartea 1.400 euro eman dizkio dohaintzan Atxondo Harrera Herriari

DURANGALDEA | Durangoko Herria auzo elkartea keinu solidario bat egin berri du. Santa Ageda koplekin eta txitxiburduntzian baturiko dirua Atxondo Harrera Herriari eman diote: 1.400 euro guztira. Herria auzo elkarteak kideek adierazi dute migratzaileen egoera apur bat hobetzen lagundu gura dutela. "Dirua esku onetan dago", esan dute ohar baten bitartez. Elkartea eskerrak eman dizkie txitxiburduntzira eta Santa Ageda koplak abestera agerturiko denei.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Smurfit Kappa
Central forestal


+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión




BUKATU MARRAZKIA

Laukiak margotu animalia honen beste erdia egiteko.
Ispilu baten moduan, bere erreflexua margotu behar duzu.




LABIRINTOIA



ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko panpina bakoitzari?



MATEMATIKA

Egin eragiketa hauek beheko balioak kontuan hartuta.

$$\text{Snowman 2} = 3$$

$$\text{Snowman 1} = 4$$

$$\text{Snowman 3} = 8$$

$$\text{Snowman 4} = 5$$

$$\text{Snowman 4} + \text{Snowman 2} / \text{Snowman 3} =$$

$$\text{Snowman 1} - \text{Snowman 2} \times \text{Snowman 4} =$$

$$\text{Snowman 3} \times \text{Snowman 4} - \text{Snowman 1} =$$

Perubeleren agurra,
19:00etan, Udazken taldeko
gaiteroekin eta dantza bertikala
egiten duen Zinbulu taldeagaz.

Otsailaren 23an

MALLABIA film laburrak
Skimetrajea: 2022ko film
labur sarituen hautaketa,
18:30ean, Kontzejazarrean.

Otsailaren 24an

BERRIZ musika
Dube, 20:00etan, Berrizko Kultur
Etxean.

ELORRIO musika
NIZE + Harat, 22:30ean,
Ateneoan.

IURRETA ipuinak
'Basoko sekretuak' (Ameli
eta Xirikituen jostunak),
17:00etan (3-5 urtekoentzat),
eta 17:45ean (sei urtetik
gorakoentzat), herri bibliotekan.

IURRETA ipuinak
'Cuentos tradicionales de
Galicia' (Quico Cadaval-

Galizia), 19:00etan, herri
bibliotekan.

ZORNOTZA antzerkia
'Hondamendia' (Artedrama
eta Axut! konpainiak),
20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 25ean

DURANGO inauteriak
Inauteri dantzak: Jainaga,
Narbaiza eta Patxi, 18:00etan,
Plateruena kafe antzokian.

MALLABIA inauteriak
Frontenis mistoa, 09:30ean,
herriko frontoian.


Otsailaren 25era bitartean

ZORNOTZA erakusketa
'Iruditik eskura, ideiatik
kolorera, jatorritik
amaierara apaltasunetik,
argia' erakusketa (Pintzela
elkartea), Zelaieta Zentroko
zeramika gelan. Ate irekien
jardunaldiak, otsailaren 17an
euskaraz eta 24an gaztelaniaz,
19:00etatik 20:30era.

Martxoaren 19ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Egiteke duguna' erakusketa
(Cristina Gutiérrez Meurs),
Durangoko Arte eta Historia
Museoan.

ANBOTOk agendan ezer
iragarri
gura baduzu, idatzi
agenda@anboto.org
helbidera edo
deitu **946 232 523**
telefonora, eguazten eguerdia
baino lehen.



INAUTERIAK

MUSIKA Durangaldea :: Otsailak 17tik 21era

Kolorez eta mozorroz jantzitako egunak

Durangaldeko herriak ko-
lorez eta mozorroz jantziko
dira datozen egunetan. Du-
rangon surrandien eta har-
tzaren konpartsak kale eta
bartzarak harrotuko ditu, eta
Zornotzan ongietorri beroa
gingo diote Perubeleri. He-

rri bazkarian elkartuko dira
Berrizen eta Iurretan. Eta
Abadiñon, Berrizen, Elorri-
on, Mallabian, Otxandion eta
Zaldibarren mozorro lehia-
keta antolatu dute. Jai giroak
eta umoreak ez dute hutsik
gingo.

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

2023



*Oinarriak anboto.org webgunean

Webgunean botorik gehien
jasotzen duen argazkiaren egileak
Errigora-ren otzara bat irabaziko du



Igo zure argazkia
otsailak 17tik 22ra
bitartean



“Nabaria da egungo doinuen eragina, geroz eta aberatsagoa den euskal rock eszena asko kontsumitzen dugulako”

Dube talde berriztarrak disko berria kaleratu du: 'Ezer ez da'; laukotea izatetik hirukotea izatera igaro dira. Aiert Agirre, Iker Hernandez eta Imanol Jareño dira taldekideak

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Dube talde berriztarrak 'Ezer ez da' diskoa kaleratu du oraintsu; fisikoan kaleratu eta gero, atzotik aurrera digitaalera ere entzungai dago. Otsailaren 24an Kultur Etxean aurkeztuko dute.

'Ezer ez da' zortzi abestiko lana kalera-tu duzue oraintsu. Pozik?

Oso pozik gaude egindako lanagaz eta lorturiko emaitzagaz. Azaleratu gura genuen guztia entzun daiteke diskoan. Orain arteko feedbacka oso ona izan da eta familien eta lagunaren berotasunak energiaz betetzen gaitu datorrena ilusio osoz hartzeko.

Zer da 'Ezer ez da'? Zelan definituko zenukete?

Diskoan izen bereko abestia dago; abesti honek diskoaren konposizio prozesuan izandako sentimenduak azaltzen ditu, portadaren irudiaren inguruan metafora bat eraikiz. Bertatik *Ezer ez da* esaldia deskontestualizatzea titulu forma emanaz kontraesan polita iruditu zitzaigun. Diskoa entzuterakoan, bakoitzak modu ezberdin batean ulertzeko aukera du, bere bizipenetatik; horrela ulertzen dugu musika guk, askatzeko modu bat, eta bakoitzak bere egitea abestiak. **Musikalki, 70eko eta 90eko hamarkadetako musika taldeak aipatu izan dituzue influentzia lez. Diskoan ere horrela dela esango zenukete? Aurrerapen abestietan**

doinu/influentzia modernoagoak ere igartzen direla esango nuke.

Hasieran gure soinua bilatzen genbiltzala, 70eko hamarkadako influentziak ageriagokoak ziren. Gaur egun, oster, 90eko hamarkadako soinueta eraikitzen da taldearen nortasuna, gaur egungo influentzia modernoagoekin batera nahastuz. Nabaria da egungo doinuen eragina, geroz eta aberatsagoa den euskal rock eszena asko kontsumitzen dugulako. Besteak beste, Foo Fighters, Nirvana, QOTSA, Ezpalak, Vulk edo Etxekalte moduko taldeak ditugu erreferentzia lez.

Laukote izatetik hirukote izatera igaro zarete. Horrek eragina izan du konposaketa lanetan?

Konposaketetan atentzio gehiago ipintzea eragin du, sorkuntza fasean baliabide instrumental gutxiago geneukan eta; abestiek lehenengo unetik funtzionatzeko modua bilatzera derrigortu gaitu horrek, ekoizpen prozesura heldu orduko oinarri sendoa izateko. Honek eragin zuzena izan du emaitzan, diskoari eman gura genion gordintasuna eta biribiltasuna lortuz.

Aurreko maketaz alderatuta, euskara lehenetsi duzue abesterakoan. Zergaitik?

Hasierako influentziarik handienak ingelesez ziren maketa grabatu genuen garaian. Baina ingelesez adieraztea ez zitzaigun naturala egiten, ez forman ez me-

zuan, eta, beraz, gure ama hizkuntzara igarotzea prozesu naturala izan da. Euskaraz abestea gure hizkuntza eta gure kultura sustatzeko modu bat lez ikusten dugu, aldarrikapen bat.

Berrizko Kultur Etxekoa kontzertu berezia izango da, 360 graduko formatuan, gure lagun eta familien aurrean eta gonbidatu bereziekin

Eñaut Gaztañagaz grabatu duzue. Zelan?

Hasieratik argi genuen beragaz grabatu gura genuela, bai teknikari-ekoizle lez, bai musikari lez Ezpalak eta Grises taldeak erreferentzia direlako guretzat. Esperientzia ezin hobea izan da guretzat beragaz lan egitea; argi genuen zer gura genuen eta Eñautek, hau ulertzeaz gainera, bere aletxo ipini eta kantak haratago eraman ditu. Beragaz lan egitea astebeteko *masterclass* bat izan da, asko lagundu digu gure soinuaren bilaketan, eta bere bizipenak oso baliagarriak eta interesgarriak egin zaizkigu. Lagun bat gehiago dugu orain.

Nerea Aizpuruak ere grabatu du. Zergaitik? Badago beste kolaboraziorik diskoan?

Nerea pertsona berezia da gurtzet, urteetatik hona gertuko laguna duguna. Zenbait proiektutan elkarregaz lan egin dugu eta argi genuen pertsona aproposa zela *Hegan* abestia osatzeko. Hasieratik imajinatzen genuen txeloa kanta honetan; hunkigarria izan zen lehenengoz biolontxelo entzutea guk landutakoagaz batera, eta diskoan ere horrela geratu dela esango nuke. Horrez gainera, Karlos Berrizbeitia margolari, artista eta lagunak egindako lana aipatu gura genuke, izan ere, diskoaren diseinuetan ezin hobeto islatu ditugu gure ideiak. Beraz, diskoa ez da gurea bakarrik, lagun arteko eta elkarlanean sorturiko proiektu berezia baino.

Kontzertuekin hasiko zarete. Gogotsu?

Kontzertu berezia izango da, gure lagun eta familien aurrean, Berrizko Kultur Etxean, 360 graduko formatuan eta gonbidatu bereziekin. Elorrioko Topagunean jotzeak ere ilusio handia egiten digu. Talde itzel horiekin eta beste lagun batzuekin oholtza partekatzea izugarria izango da. Aukera paregabea izango da publiko berri eta ezberdin batengana heltzeko. Horrez gainera, martxoaren 10ean Ermuko London tabernan joko dugu, apirilaren 16an Amaraun arte fabrian, eta maiatzaren 13an Ubideko garagardo jaialdian.



Enrike Larramendi, Iturri kultur etxean.

Enrike Larramendik ehun bat baserriren marrazkiak bildu ditu

Marrazkilariaren lanak Elorrioko Iturri kultur etxean egongo dira ikusgai, otsailaren 25era arte

MARRAZKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Enrike Larramendi elorriarraren pasioetariko bat marrazkigintza da, gazte-gaztetatik. Besteak beste, baserriak margotzea du gustoko. Hain zuzen ere, 115 lanekin erakusketa ipini du Elorrioko Iturri kultur etxean; besteak beste, Elo-

rrioko, Abadiñoako, Durangoko, Elgetako eta Eibarko baserriak ikusi daitezke bertan. "Koadroetako batzuk zaharrak dira eta margotu nituenetik hona aldatu egin dira baserriak, edo bota egin dituzte, baina ondo dago, gogoratzeko", azaldu du Larramendik. Elorrioren

kasuan, bertako baserri guztien margoak edukitzea gustatuko litzaioke, eta osasunak "uzten" dion bitartean hori lortzeko lanean dabil. "300 bat baserri daude Elorrioren, eta 200 baino gehiago margotu ditut jada; erakusketak beste herri batzuetan ere ipintzen ditudanez, horietako baserriak ere margotzen ditut, baina herriko denak margo-tzea gustatuko litzaidake".

Besteak beste, Elorrioko, Abadiñoako, Durangoko, Elgetako eta Eibarko baserriak ikusi daitezke

Urteotako ibilbidean, hainbat plazatan erakutsi ditu bere lanak Larramendik. "Lehenengoa Argiñetako jaietan izan zen, eta ordu-tik Bilbora, Gernikara, Debara eta Eibarera eraman ditut nire lanak", adierazi du. Erakusketarik handiena Durangoko Ezkurdi aretoan egin zuen, 140 koadrogaz. Egun, aita jaio zen baserria margotu guran dabil. "Horretxegaz nabil, bati eta besteari galdetzen. Informazioa lortzea ez da erraza izaten, denboragaz baserriak aldatzen joan direlako", azaldu du Larramendik.

Arkatzagaz marrazten hasi arren, lumagaz marraztea du gustokoen Enrike Larramendik. "Detailez jabetzen naizenean margotzen dut lumagaz, baina gaur egun geroago eta gatzaxoa da. Tinta onak lortzea ez da erraza, eta papera ere eskasa da. Ahal dudan moduan margotzen jarraitzen dut", argitu du.

Cristina Gutierrezen 'Egiteke duguna' ikusgai Durangon

Haur lapurtuak, amatasuna eta indarkeria matxista ditu ardatz erakusketak; martxoaren 19ra arte egongo da

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Gaurkotasuna duten gaiak artean islatuta ikusteko aukera paregabea dago Durangoko Arte eta Historia museoan. Izan ere, Cristina Gutiérrez Meurs artistak haur lapurtuak, indarkeria matxista eta amatasuna gaiak jorratu ditu 'Egiteke duguna' erakusketan. "Haur lapurtuen gaiak urrunekoak dirudien arren, 80ko eta 90eko hamarkadetan bertan ere egon dira kasuak, eta garrantzitsua da horiek ezagu-

taraztea, baita artearen bitartez ere", azaldu du Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak. Ez da lehenengo aldia artistak bere lanak Durangoko museoan erakusten dituenak. Hain zuzen ere, Sorginak erakusketaren parte hartu zuen, *Ignifuga* piezagaz. "Pozik nago, buruan nuen moduan gauzatu ahal izan dudalako erakusketa; bisitaria probokatzea eta hausnarketara gonbidatzea espero dut", azaldu du Gutierrezek prensaurrekoan.



Garazi Arrizabalaga, Ane Abanzabalegi, Cristina Gutiérrez eta Ima Garrastatxu.

Gai librean

Obsesioaren artea

Amaren etxeko eskailerak jaisten ari nintzela akordatu nintzen umetan artisten kalean bizi nintzela uste nueneko. Nola pelikula oso bat tramatu nuen pisuzko arrazoiekin.

Bertako komertzio eta bizilagunek osatzen zuten "Arte" kale. Durangoko liburudenden bi bostenak bertan zeuden, altzarien zaharberritzaile gazteak bizi ziren eta noizean behin piano baten hotsa entzuten zen harategitik. Artista bihurtzea zen protagonistaren obsesioa neguko zirku horretan.

Eskailerak jaitsi eta portaletik irtenda, zarata soziala zerion plazari.

Bekain eta patilla iluneko kaletar bat ikusi nuen nigana hurbiltzen. Harrapakin poetiko bat eskuratzeko borrokan zebilela zirudien, zigarro

Eskailerak jaitsi eta portaletik irtenda, zarata soziala zerion plazari

Amaren etxeko eskailerak jaisten ari nintzela akordatu nintzen umetan artisten kalean bizi nintzela uste nueneko

bat ahotan zuen begi handidun gizon baten atzetik. Santa Anarantza zihoan zuzenean.

Ez dakit zehazki zenbat distantzia dagoen pasiotik obsesiora, baina hark

zekarrena ez zebilen ipuin inposible batetik urrun.

Ekintza kate posibleen sekuentzia ezberdinak entseatu nituen nire kolorkako (etorkizun gertuan, litekeena da filmen muntaiak mentalki egin ahal izatea). Begiratu ere ez zidan egin baina nik ezkerreko hanka luzatu nuen justu. Zangotrabatu eta lurrera erori zen, laurogeita hamar gradutan.

Begirada planoza zabaldu nuen atoan. Ezaguna egin zitzaidan beste gizonaren aurpegia, zigarroa lurrera bota eta arinetan hasi zen. Barrenkalerantza sartzeaz zela, atzera begiratu zuenean ohartu nintzen.

Eskua luzatu nion bizilagunari. Eta toponimiaz hasi nintzaion eta nola zeharkalek kale guztiak zeharkatzen dituen eta argentinarrak lotsatia kalean behera jaitsiko zela guk bertan gurtzatu arte.



Ainhoa Olaso Sopelana
Behargina



Ainhoa Ruiz de Infante Kortazar

Pilotaria

OTXANDIO | 2001

"Ados klubean aurrerapausoak eta hobekuntza handiak aurkitu ditut pilotarien baldintzetan"

Ainhoa Ruiz de Infante emakumeen binakako txapelketako final-laurdenetara sailkatu da, Oihana Orbegozogaz batera

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Ainhoa Ruiz de Infante gustura dabil txapelketan eta gustura Ados klubean. Txapelketan, Oihana Orbegoz eta biak final-laurdenetara sailkatu dira, orain arte egindako lanari esker. Ados klubari dagokionez, pilotariari ematen zaien tratuan hobekuntzak ikusi ditu klubera batu zenetik.

Gustura zaude orain arte egindako lanagaz?

Lehenengo partidu biak irabazita oso ondo hasi ginen. Gero, lehenengo sailkatu bien kontra galdu genuen. Ez genuen txarto jokatu, irabazi genezakeen, baina une zehatz batzuetan egindako hutsengaitik galdu egin genuen. Gero berririo irabazi dugu. Beti egin daiteke hobeto, baina pozik gaude. **Txapelketa irabaztea ametsa da, ala lortu dezakezen zerbait?** Txapela lortzea posible da. Onenen kontra maila ona eman dugu eta hutsegite konkretu batzuk zaintzen baditugu txapela lortzeko lehian egon gaitezke. Baina, tira, finala urrun ikusten dut oraindino, lan handia dugu aurretik.

Orain lau-bost urte elkarrizketatu zintudan azkeneko, 17 urte zenituela. Harrezkero zertan aldatu da Ainhoa Ruiz de Infante?

Kantxan eta bere jokoan konfiantza gehiago dut eta ezker eskua ho-

betu dut. Noiz arriskatu eta noiz ez ikasi dut, batzuetan tantoa landu egin behar dela arriskatu aurretik. Eguneroko bizimoduak, batxiller-gotik unibertsitarerako saltoak... horrek asko irakasten dizute.

Durangaldekoa zarelako-edo asko jokatzeko zabilza inguruotan. Abendutik hona Otxandion, Izurtzan eta Durangon jokatu duzu.

Bai, eta etxean edo eskualdean jokatzeko ilusioa egiten du. Azkenean, Ados kluba Durangaldera ez ezik beste eskualdeetara eta, orokorrean, Bizkaira, Gipuzkoara zein Arabara zabaltzeko apustua egiten dabil. Nafarroan asko jokatu dugu, baina garrantzitsua da beste lurraldeetara ere hedatzea.

2021ean Ados kluba sortu zenean, bertara batu zinen Emakumeen Master Cup utzita. Zergaitik hartu zenuen erabaki hori?

Hasieran Master Cup-ek pilotariok plazara irteten lagundu zuen eta lan hori hor dago. Baina erabakiak hartzeko une bat heldu zitzaidan, eta gauzak egiteko moduak birdefinitzekoa, eta horretan jauzi handia nabaritu dut Ados klubean. Klub honetan hobekuntza handiak eta aurrerapausoak ikusi ditut pilotarien baldintzetan. Urte osoko kontratua dugu, urte osoan kotizatzen dugu eta aseguruia dugu. Master Cup-en ez nuen ho-

rrelakorik. Lanegun bakoitzeko kotizatzen nuen. Profesionaltasunetik urrun gaude oraindino. Profesionala izatea ez da telebistan agertzea bakarrik. Profesional sentitzea ere bada, baldintza egokiak dituzula ikustea, beste edozein lanbidetan lez.

Orain pilotari batzuk Master Cup-en dabilza, eta beste batzuk Ados klubean. Lubaki bat dago pilotari talde bien artean?

Emakume pilotariak banatuta gau-

dela ematen du eta pena da. Alde biok berba egingo bagenu hoberako litzateke, baina une honetan gatx dago. Azkenean, bakoitzak gehien zer komeni zaion ikusi behar du eta erabaki guztiak errespetatu behar dira, baina gauza batzuk argi daude nire ustez. Nork hartzen ditu erabakiak? Ados kluba pilotariok maneiatzen dugu. Maite Ruiz de Larramendi eta Iera Agirre [sortzailak] daude hor goian, baina gure mailan daude azken batean, gure

modukoak dira. Horrek ahalduntzeko aukera eskaintzen digu emakume pilotariari eta ez gara desinformatuak sentitzen.

Bestalde, kanpotik begiratuta, eman dezake pilotarien mailan ere aldea dagoela, haiek gu baino hobekuntza dute. Ez da horrela. Desinformazio handia dago horretan.

Oraingoz zuen txapelketa ez da telebistan ematen. Hori oso lagungarria litzateke oihartzuna gehitzeko eta babesleak lortzeko.

Sare sozialak hor daude, baina telebista garrantzitsua da oihartzuna handitzeko, bai. Baina gatxa da. Ados iaz sortu zen eta Master Cup-ek sei bat urte daramatza martxan. Guk ez dugu dena apurtu gura. Ondo egongo litzateke alde biak akordio batera heldzea.

Dimako pilota eskolako arduradunetarikoa eta entrenatzaileetarikoa bat zara. Zelako esperientzia izaten ari da?

Hiru urte daramatzat horretan; mutilak zein neskek entrenatzen ditut. Asko ikasten nabil eta entrenatzen ditudan neska-mutilen bilakaera ikustea oso polita da.

Otxandioko Iluntxo pilota elkartearen hasi zinen. Zein da elkartearen egogara gaur egun?

Urte askoan pilota klubaren arduraren eraman zuten hiru pertsonak hil egin ziren denbora gutxiren barruan. Lan handia egin zuten urte askoan. Urte batzuetan pilota elkarte desagertuta egon dela esan daiteke. Azkenaldian, herritar batek hartu du ardura eta hainbat ume dabil beragaz. Meritu handia du.

Inoiz bueltatuko zara hazten ikusi zintuen klubera?

Orain urte batzuk ez nuen esperientziarik eta ez nintzen prestatura sentitzen hori dena aurrera eramateko. Orain, unibertsitatean Gizarte Languntzako ikasketak amaitzen ditudanean eta Dimako eskolan nagoela baliatuz, Otxandioko eskolari laguntzea gura nuke.



Ainhoa Ruiz de Infante, txapelketako partidu batean. EDUARDO AGIRRE

Defentsako lanik onenagaz eta golegile petoekin, Elorriok goi-goian jarraitzen du Euskal Ligan

Jardunaldiak aurrera doaz eta Elorriok ez du erritmoa jaisten. Liga osoan birritan baino ez da geratu aurkariaren atea zulatu barik eta hamabi bider utzi dute eurena hutsean. Une honetan hirugarren tokian kokatuta dago sailkapenean

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Gol asko sartu, gutxi jaso, dinamika irabazlea, giro ona taldean... Gozatzeko moduko denboraldia izaten ari da Elorrioko emakumeen talde nagusiarentzat. Hamahiru jardunaldiren faltan, Euskal Ligako hirugarren tokian dago eta ez dio gorago egoteari muzinik egiten.

Estatistikak Elorrioren bide onaren isla dira. Azarotik hona jokaturiko 11 partiduetatik 9 irabazi dituzte eta bat berdindu. Liga osoan partidu bitan baino ez dira geratu golik sartu barik, eta euren atea hamabi bider geratu da hutsean.

Erasoko jokoari dagokionez, golik gehien sartu duen ligako hirugarren taldea da: 48, partiduko bi baino gehiago, batez beste. Golen erdiak baino gehiago Itsasne Larruskain —15 gol— eta Laura Romero —11 gol— aurrelarien artean sartu dituzte. Larruskain (Abadiño, 1992) Euskal Ligako bigarren golegilerik onena da. Elorrioren egin du orain arte bere futbol ibilbide osoa eta 2009/2010 denboralditik lehenengo taldean dabil. Romero (Abadiño, 1998), ostera, Arratia taldeetik etorri da aurten.

Defentsa lanean ez du parekorik Elorriok. Ligan golik gutxien hartu duen taldea da: 16. Taldeko



Liga osoan partidurik irabazi ez duen Ipar Arriaga Gasteiz taldearen aurka jokatu du Elorriok, asteburuan.

atezain biak, Olatz Alberdi eta Izar Zubiaga, golik gutxien hartu dutenen zerrendan goi-goian daude. Alberdi ligako 'Zamora' da une honetan, bederatzita partidutan lau gol hartuta. Sendotasuna da taldearen dohainik "inportanteena", Gontzal Arana entrenatzailearen ustez. "Ligako talderik sendoena eta irmoena garelako uste dut", dio.

Euskal Ligatik talde bat igoiko da mailaz. Elorriok Alaves B eta Getxoko Bizkerre talde ahaltsuak ditu aurretik. Gasteiztarrek talentu handia dute, filialeko talde denen antzera. "Azken batean, Arabako selekzio bat dira", dio Aranak. Bizkerrek, bestalde, ia 300 fitxa ditu emakumeetan: hau da, sekulako

harrobia. Inora begiratzekotan "gorantza" begiratu behar dutela uste du Aranak, gutxienez bigarren postura, baina jakitun "ia ezinezko" dela lehenengora heltzea: "Edozelan ere, Elorrioren moduko herri txiki batentzat Euskal Ligan hirugarren geratzea meritu handiko denboraldia egitea litzateke".

Derbia lurretakoren eta Elorrioren artean, Ohorezko Mailari eusteko borrokan

FUTBOLA • J.D.

Durungaldeko hiru futbol ordezkariak estu dabilta gizonen Ohorezko Mailan, Bizkaiko mailarik gorenean. Abadiño eta Elorri azken-aurreko eta azkenengo daude, hurrenez hurren. Bestalde, lurretako jaitsiera postuetatik kanpora dagoen lehenengo taldea da. Beraz, lurretakok eta Elorriok puntu premian jokatu dute derbia zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

Abadiño, Elorri eta lurretako estu dabilta. Lehen biak jaitsieran daude eta lurretako, ertzean

Elorriok partidu bi baino ez ditu irabazi 22 jardunalditan, eta 12 puntura du salbazioa. Lan gogorra du aurretik, liga amaitzeko 16 jardunaldi falta diren arren oraindino. Jaitsieraren ertzean dagoen lurretakok beste derbi batean lortu zuen azken garaipena; iazko abenduan 1-2 menderatu zuen Abadiño, Astolan.

Bere aldetik, Abadiñoek Bermeoren kontra jokatu du zapatuan, 16:00etan, Astolan. Abadiñarrek zazpi puntura dute salbazioa.

Jokaldia

Sasoian sasoikoa

Negua aurrera doa eta soloak prestatzen ari dira, haziak erein eta maiatz-ekainean fruituak jasotzeko prest egongo dira. Aurten, gainera, negu gogor honetatik, indarrez, topera dator uzta.

Batez ere, nesken taldeetan. Tabirako Baqué topera dabil. Aurretik idatzitako zutabeen, bigarren garaipena jarraian lortzeak ekarriko zuen konfiantza azpimarratzen genuen. Ezinbestekoa izango zela taldeak lantzen duen joko kolektiboa indartzeko eta taldearen esparru guztiak pausoz pauso indartzen joateko. Emaizta horiek gaur egungo egoera bikaina ekarri dute eta taldearen jokoa eta indarra gero eta handiagoa egiten dute. Joan zen asteburuan hamargarren garaipena eskuratu zuten jarraian, CB Araba taldearen kantxan 53-57 irabazita. Liga



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

Tabirako Baqué nesken taldea topera dabil. Orain arteko emaitzek gaur egungo egoera bikaina ekarri dute

Mutilen taldeetan, ostera, Teknei Zornotza topera dago. Azken hiru partiduk irabazi ditu jarraian

erregularreko sailkapenean bigarren postuan daude, Ibaizabal galdakoztarrengandik bi partidura eta Araskirekin berdinduta. Hain zuzen, zapatu honetan Ibaizabal liderraren kontra jokatu dute durangarrek, Landako kiroldegian. Ia bigarren itzulian oinarri sendo

honekin aurrea hartu eta Emakumeen Liga 2rako igoera fasean parte hartzeko aukera izaten duten.

Mutilen taldeetan, ostera, Teknei Bizkaia Zornotza topera dago. Azken hiru partiduk irabazi ditu jarraian eta bere jokoa aurretik egindako lanean dago oinarrituta. Horren euskarri nagusiak, Iker Salazarren moduko jokalariek dira. Lana, lana eta lana oinarri izanda taldearen izakera eta indarra sustatzen dutenak dira. Sainz de la Maza, Mendia, Alberto Cabrera, Oier Ardanza... eta talde osoa izanik elkarren arteko lanarekin goiko postuetan egotea gogor eutsiko dutenak. Asteburuan Zilarrezko Ligan azken postuan dagoen Cazoo Baskonia taldearen kantxan jokatu dute.

Aurrera! Ondo landutakoa gora dator. Ia uzta oparoa jasotzen dugun!



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



Botikak

BARIKUA, 17 · 09:00-09:00
UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 18 · 09:00-09:00
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
09:00-13:30
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22 - DURANGO
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA, BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 19 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 20 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2 - DURANGO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 21 · 09:00-09:00
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 22 · 09:00-09:00
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22 - DURANGO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
EGUENA, 23 · 09:00-09:00
SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**.
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.


Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Ur!** Muxuak eta besarkadak Gasteizko aiteitamamen eta osaben partez!



Zorionak, **Iara!** 13 urte bete dituzu. Musu handi bat etxekoen partez.



Otsailaren 16an **Maiderrak** 7 urte egin zituen. Zorionak, gure politxe, familia guztiaren partez. Musu erraldoi bat. Asko maite zaitugu!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 4° / 19° ☀

ASTELEHENA ↓ 6° / 17° ☀

EGUAZTENA ↓ 6° / 14° ☁

DOMEKA ↓ 3° / 14° ☁

MARTITZENA ↓ 6° / 19° ☀

EGUENA ↓ 3° / 9° ☁

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



"Tximino eta tukanen soinuekin esnatzea benetan da ederra"

2021eko urritik, Ziortza Elorza zornotzara Puerto Viejo de Talamanca bizi da, Costa Ricako hegoaldean. Atzeritarrei gatzelaniazko eskolak ematen lan egiten du han



Ziortza Elorza Vadillo

Irakaslea

ZORNOTZA | 1991

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Turista asko erakartzen duen herri txiki bat da Puerto Viejo de Talamanca. Bertako kultura afrokaribearrera ondo egokitu da Ziortza Elorza, familia eta lagunengandik urrun egon arren. Zornotzara bueltatuko dela dio, bisitan behintzat.

Urtebete baino gehiago daramazu Costa Rican. Zerk eraman zintuen?

Boluntario lanetan eta herrialdean zehar bidaiatzera etorri nintzen, 2021eko uztailean. Hile bi egin nituen hemen. Hala ere, Zornotzara bueltatzean, amaitu bako esperientzia zela sentitu nuen, eta

urrian bueltatzea erabaki nuen. Eta hemen jarraitzen dut. Zelan egokitu zara? Bizikera guztiz desberdina dute Costa Rican.

Bai, Euskal Herrian baino bizimodu askoz lasaiagoa dute. Benetan garrantzitsuak diren gauzei ematen diete inportantzia. Pentsamolde orokorra da zerbait konponterik badago berez konponduko dela, eta, bestela, ez dagoela zertan arduratu. Gainera, ez dute ezertarako presarik. Inogaz geldituz gero oso normala da gutxienez ordu erdi berandu heltzea, ez dago batere txarto ikusita. Horrek apur bat urduritzen nau. Ez naiz inoiz bereziki

Euskal Herrian baino bizimodu askoz lasaiagoa dute. Benetan garrantzitsuak diren gauzei ematen diete inportantzia

puntuala izan, baina hemengoa apur bat muturrekoa izan daiteke. Dena dela, ondo egokitu naiz. 'Pura vida', ezinbestean Costa Ricagaz lotzen dugun esaldia da.

Kontzeptu hori oso barneratuta dute Karibearen. Bizitzeko era bat da, eta denetarako erabiltzen duten

esamoldea da 'Pura vida'. 'Egun on', 'on egin', 'eskerrik asko' edo 'agur' esatean, 'Pura vida' gehitzen diote; une oro entzun daitekeen esalmodea da.

Munduko biodibertsitate handiena du Costa Ricak. Zerk harritu zaitu gehien?

Oso gaxa da bat aipatzea. Biodibertsitate hori une oro ikusiten dudan arren, oraindino ere ilusio handiz bizi dut. Goizero tximinoen eta tukanen soinuagaz esnatzea benetan da ederra, edo paseatzen noala nagi bategaz gurutzatzea. Snorkel egitea ere merezi du. Azkenengoz, inude marrazo eta manta-arratia bategaz igeri egiteko aukera izan nuen, eta esperientzia ederra izan zen. Bestalde, kolore guztietako landareak daude, oso kolore biziak dituzte gainera. Aurretik ezagutzen nuen arren, hibisko lorea gustatzen zait gehien.

Askotan, bisitatu dudan herrialde horretan bizitzen ikusi dut neure burua. Costa Ricaren kasuan, probatzeko pausoa eman nuen

Aurretik, Austrian eta Vietnamen ibiltakoa zara. Guatemalan eta Panaman ere bai, baina Costa Ricak bereziki erakarri zaitu?

Ahal dudan neurrian bidaiatzea maite dut, toki eta kultura desberdinak ezagutzeko. Askotan, bisitatu dudan herrialde horretan bizitzen ikusi dut neure burua. Bada, Costa Ricaren kasuan, probatzeko pausoa eman nuen eta oso positiboa izaten ari da. Beste herrialde eta kultura batzuk ezagutzea oso gomendagarria da. Eta Costa Ricak badu zerbait berezia. Merezi du bizitzan behin etortzea.

Zeren falta igartzen duzu hor?

Familiaren eta lagunaren falta, jakina. Maite ditudanengandik urrun egotea da hemen egotearen alderik txarrena. Gure janariaren falta ere bai. Euskal Herrian oso kultura gastronomiko aberatsa dugu, oso ondo jaten da. Costa Rican ere bai, oso jaki zapoetsuak daude, baina nahiko mugatuak dira.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Artean obsesioa

Etxeko eskailerak bajatzen nabilela burutazio arraroa eduki nuen: zutabe hau bihar idazten nabilela. Portaletik irten eta Artekaletik gora jo nuen, zer topatuko. Txiki-Otaegin ume batzuk saltoka-maltoka ikusi nituen lurrean klarionaz marraztutako laukien gainetik, pozik, eta ikusi nuen tipo bat ere gainetik pasa zela saltoka, lehenik hanka bat, gero bestea. Esku handiak ikusi nizekion, zigarroa ahoan eta zapo aurpegia. Bera zen. Bai. Lar bera zen, beste inor izateko.

Bere atzetik jo nuen, instintuz, Artekaletik gora. Esan gura nion gure arteko enkontru hura ez zela menturazkoa baxterez, beilatokietan ez dakidala egoten, egin dizkidaten opari askotan ni ere sentitu izan nabilela oparitu, metro karratu bat lurzoru erosteko aurrezten nabilela, eta beste gauza asko esker onez. Harrezkero konturatu zen norbait segika zuela, eta ibilkera bizkortu zuen, urduri. Esan gura nion Casa tomadako burges beldurtia zirudiela, gera zedila, Toritorrena lez konta ziezadala bere bizitza parke batean, egon gitezela kafesne. Momentu hartan Arteka pareko portaletik neska bat irten zela uste dut, ez dakit zer pentsatuko zuen ni inoren atzetik ikusita, baina film batean bezala sentitu nintzen. Korrika hasi eta eskua luzatu nuen momentuan bertan zangozabala egin zidan, ordea.

Lurretik ikusi nuen joaten, eskumara biratu eta Barrenkalerantz, magoa, kronopioa: Julio Cortázar. Ez dakit zergatik bota ninduen, ez dakit zergatik ebaki zidan obsesioa. Ez dakit jausi nintzen ala berriro jausi nintzen. Badakidana da literatura obsesio barik ezin dudala ulertu, eta eskua luzatu zidala lagunkiro.

SAN ROKE BARRIA

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon, efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41
www.sukia.com